

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2184

*AGINDUA, 2023ko apirilaren 24koa, Hezkuntzako sailburuarena, Leioa (Bizkaia) udalerriko EMPU «Leioa» MEPU Musika Eskola Publikoari 1. maila irakasteko baimena emateko dena.*

Leioa (Bizkaia) udalerriko «Leioa» Musika Eskola Publikoak 1. maila irakasteko baimen-eskaera aztertu da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Kontuan hartuta urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren II. kapituluaren ezartzen dela irakasleei musika-eskoletan irakatsi ahal izateko eskatzen zaien titulazioa (289/1992 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiak –musika-eskolak– sortzea eta horien jarduna arautzen duena; 1993ko urtarrilaren 4ko EHAA).

Indarrean dagoen legedia ikusi ondoren eta arauz eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla kontuan harturik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2023-2024 ikasturteik aurrera 1. maila irakasteko baimena ematen zaio ondoren zehazten den musika-eskolari:

Kode-zenbakiak: 014993 (EAE) eta 48009591 (unibertsala).

Izen generikoa: Musika Eskola Publikoa.

Izen espezifikoa: «Leioa».

Titularra: Leioako Udala – Soinu-Atadia Udal Fundazio Publikoa.

Helbidea: Iparragirre etorbidea, 70.

Udalerria: Leioa.

Lurralde Historikoa: Bizkaia.

Ikastetxe horretan irakaskuntza hauek emango dira:

– Mailak: 1.a, 2.a, 3.a eta 4.a.

– Adarrak:

● Kantua: Bakarlarria eta Koroa.

● Instrumentu sinfonikoak: txirula, piccolo, biolina, biola, klarineta, biolontxelo, tronpeta, saxofoia, oboea, kontrabaxua, fagota, tronpa, bonbardinoa, tuba, tronboia eta perkusioa.

● Instrumentu polifonikoak: pianoa, gitarra eta akordeoia.

● Bertakoa: txistua.

Bigarrena.– Indarrean dagoen araudia bete behar du ikastetxeak, irakasleen titulazio akademiakoari dagokionez. Bestela, bidezkoa litzateke emandako baimena baliogabetzea.

Hirugarrena.– Zentroak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna ikastetxeko titularrari dagokio.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 24a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.